

HAUR LITERATURA

Hartu lili bat

LILI

Autorea eta ilustratzailea: Amaia Hennebutte.

Argitaletxea: ZTK, 2017.

Salneurria: 15 euro.

Lore AGIRREZABAL


A tzo, Amaia Hennebutteren "Lili" albuma irakurriz lokartu nintzen, eta, gaur, "Lili bat" abestiak esnatu nau, Sarrionandiaren letretatik Laboak kantatzen zigun hark. Bien artean oharkabean egin dudak loturak harritu nau. Hostoz hosto erantzten da Laboaren lorea, biluztu egiten da barruan duena erakutsi nahiko balu bezala. Petaloz petalo loratzen da Hennebutteren lilia, barruak eskatzen dion moduan bizi hasten denean.

Badute beste ezaugarri komun bat, begi bistakoa den tituluaz gain: hitz gutxitan asko esaten dute biek ala biek. Hennebutteren hitzei bakoitzak bere esanahia bilatuko die; izan ere, garen horretatik ulertzen baitugu guztia. Hala ere, funtsean, loraldiaz ari zaigu sortzaile eta artista miarritzarra liburu honetan, hau da, sakon-sakonean garen

hori azaleratzeaz, maitatzeaz, estimatzeaz. Finean, autoestimua ari zaigu, nork bere buruari dion begiruneaz eta maitasunaz.

Istorio honetako Lilik maite du besteiei plazer ematea, eta, haiek bera errespetatzen ez dutenean ere saiatzen da ulerkorra izaten. Gustuko ez duenean edo bere balioen kontra doanean ere besteen nahiei beti baiezkoko emango die, baina bere mugak gainditzen doan heinean, distira galtzen hasten da ia bere burua suntsitzeraino. Orduan ohar-tuko da, maiz, hurkoari mesede egiteagatik bera izaten dela kaltetua. Kosta egingo zaio lehentasun kontua dela ikustea, hau da, lehenengo bere burua zaindu, estimatu eta errespetarazi behar duela besteak ongi maitatzeko. Baina horretara heltzean loratu egingo da, hazi egingo da barruan daraman edertasun guztia kanporatuz.

Hitzak irakurriz uler dezakegu liburuen mezu nagusia, baina album honetan marrazkiak ere irakurtzeko dira, eta hainbat irakurketa izan ditzakete. Izan ere, irudien kontakizunari helduz, protagonista batzuentzat lore bat izango da, besteentzat neska bat, eta zenbaitak bere burua ikusiko du bertan irudi-



katuta. Poesia egiten du Hennebuttek album honetan eta oso irekita uzten du kontakizuna, bakoitzak nahi bezala interpretatu dezan.

Istorio asko ezkututzen dira liburuko hitzen, lerroen eta koloreen artean. Jolas polita izan daiteke hurrekin irudien bidez ipuinak asmatzen ibiltzea. Izan ere, lehen irakurralditik bigarren edo hirugarrenera bitartean izugarri zabalduko da gure ikuspegia; lorez eta hostoz betetako oihan nahasi bat ikustetik, lerro horien artean osatzen dituz-

ten irudi zehatzagoak bereiztera pasatuko gara, eta, irudimena martxan jarritz gero, gauza asko ikusteko gai izan gaitzke.

Koloreari dagokionez ere berezia da lan hau, egileak ez baititu ilustrazio guztiak margotu, baina kolore argiak nabarmen ugaritzen dira amaiera aldean. Horrekin ere, noski, zerbait ematen digu aditzera egileak.

Albuma Baigorriko (Nafarroa Beherea) ZTK argitaletxeak kaleratu du tapa gogorreko edizio zainduan. Baina liburua badu beste edizio bat ere, tapa biguneko eta kolorerik gabea. Mandala itxurako argitalpena dirudi, eta, hain zuzen horretarako sortu dute, nahi duenak nahi bezala margotzeko, haur bakoitzari "bere Lili" sortzeko aukera emateko.

Guztiarekin, album honetan Amaia Hennebuttek hainbeste maite duena lortu duela esango nuke, alegia, gure irudimena dantzan jartzea; artea sortu eta sortzeko eskaintzea haur -eta gazte- literaturaren bidez. Horretan aritua eta aditua da lapurtarra, duela gutxi, hain justu, Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkartearen presidentea izendatu berria.

#nibiziNAIZni
Bizipoza naiz+-en

Bidali argazki, irudi, postal edo bideoak eta irabazi hauetako sari bat

E-mailez: nibizinaizni@naiz.eus edo
Postaz: **Portuetxe, 23-2a. 20018 Donostia**
Twitter eta Instagramen: **#nibiziNAIZni**

* ✈️

2 LAGUNENTZAKO
2 BIDAIA
Europara

NEKAZAL ETXE BATEAN
EGONALDIA

GARAko
BAXERA



1.- Parte hartzaile guztien artean zozkatuko dugu **Ibiltari Bidaiak** agentziak eskainitako bi lagunentzako Munich, Lisboa, Praga, Erroma edo Bruselara bidaia. 2.- Sari bera Zazpikako editore grafikoak hautatutako argazki irabazlearentzat. 3.- Jasotako bideoen artean (zozketa) **Etxebarriako Antsotegi Hotelean** bi eguneko egonaldia bi pertsonentzat. 4.- GARAko baxera irakurleen argazki gustukoarenentzat (Facebook). Baldintzak: naiz.eus/naizplus